b) Declaración responsable -en los casos en que cuenten con más de quince personas trabajadoras en plantilla- de que cumple las medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.





7. oinarria. Dokumentazio egiaztagarria.

1. Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da, egoitzan edo web orrian eskuragarri dagoen eredu ofizialaren bitartez:

<http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

b) Enpresaburu edo profesional diren pertsona fisikoen kasuan edo partaidetzarik gabeko enpresen kasuan, EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kultura Ondarearen Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko

Base 7. Documentación verificable.

1. El Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos necesarios para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las interesadas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.

Los referidos datos son:

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

En caso de que la persona solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada, en el modelo oficial disponible en sede o a través de la página web:

<http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

b) En el caso de personas físicas que ostenten la condición de personas empresarias o profesionales, o empresas no participadas, certificado de alta en IAE.

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

d) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con Seguridad Social.

Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Patrimonio Cultural podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5





abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

8. oinarria. *Eskabideak zuzentzea eta hobetzea.*

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo horiek ez badute foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat, orduan interesdunari agindeia egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Kultura Ondarearen Zerbitzuak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

9. oinarria. *Diru-laguntzak emateko araubidea.*

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru-araua 20. artikulua 1. zenbakiaren bat, diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka araubidearen arabera izapidetuko da.

Edonola ere, arau horretan hau ezartzen da: salbuespen modura, diru-laguntzaren helburu edo izaeratik ezinezkoa bada prozedura norgehiagokaren bitartez izapidetzea, norgehiagokarik gabekoa izango da diru-laguntzak emateko prozedura, eta, beraz, eskabideak jaso ahala banatuko dira funtsak —betiere eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte— harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65.2 eta 67. artikuluek ezartzen dute artikulua horietan azaldutako jarduera arkeologikoaren % 50a ordaindu behar duela Foru Aldundiak; hortaz, legezko betebeharra da. Ondorioz, laguntzak emateko prozedura ez da norgehiagoka izango, ohi den bezala, baizik eta, salbuespen gisa, lehia askea, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluko 3. lerroaldearen arabera.

de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Base 8. *Subsanación o mejora de las solicitudes.*

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá al interesado para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, el Servicio de Patrimonio Cultural podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

Base 9. *Régimen de concesión.*

Conforme al artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el procedimiento ordinario de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva.

No obstante, el mismo precepto faculta, con carácter excepcional, a que cuando por la finalidad o naturaleza de la subvención no sea posible tramitar en régimen de concurrencia competitiva, el procedimiento de concesión a seguir sea el de libre concurrencia, distribuyéndose los fondos según se reciban las peticiones, siempre que reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

Los artículos 65.2 y 67 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco establecen la obligatoriedad de la Diputación Foral de satisfacer el 50 % de la actuación arqueológica en ellos descrita, por lo que estamos ante una obligación legal, razón por la cual el procedimiento de concesión no será el ordinario de concurrencia competitiva, sino el excepcional de libre concurrencia, conforme al tercer párrafo del artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.





10. oinarria. *Diru-laguntzak emateko irizpideak.*

1. Diru-laguntza emateko, espedientean egiaztatuta geratu behar da, batetik, eskatzaileak onuradun izateko betekizunak betetzen dituela, eta, bestetik, dagoeneko eginda dagoen jarduera diru-laguntza jaso dezaketenen artean dagoela.

Aurreko hori egiaztatu ondoren, diru-laguntzak emango dira.

2. Diru-laguntzaren zenbatekoa egindako jardueraren gastuen arabera zehaztuko da, BEZa kanpo utzita, berreskuratu edo konpentsatu daitekeenean izan ezik.

3. Proiektua eta aurrekontua benetan diru-laguntza jaso dezaketenean jarduerari dagozkiela egiaztatu ondoren, eta, behar izanez gero, zenbatu behar ez diren gaitzirik kendu ondoren eta dagozkion zuzenketak eta doikuntzak egin ondoren, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da; zenbateko horrek ezin izango du inoiz honako kopuru hauetako txikiena gainditu:

a) Aurkeztutako gastuen % 50a, baldin eta jarduera horiek beharrezkoak badira edo babes ertaina edo berezia duten gune edo ondasun arkeologikoak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz, edo ustez hondakin arkeologikoak dituzten gune, orube edo eraikinak zein Eusko Jaurlaritzaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan ondasun babes ertaina edo berezizat kalifikagarri gisa agertzen direnak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz.

b) Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa; hala ere, beste diru-laguntza batzuk ere batera jasoz gero, berariaz ezarritakoa aplikatuko da.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste diru-laguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du inoiz gainditu onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

11. oinarria. *Aholkularitza.*

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Kultura, Euskara eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webean:

Base 10. *Criterios de otorgamiento de las subvenciones.*

1. Para que proceda el otorgamiento de la subvención deberá quedar acreditado en el expediente que la persona solicitante cumple los requisitos para ser beneficiaria, así como que la actividad ya realizada tiene la consideración de actividad subvencionable.

Verificado lo anterior, se procederá al otorgamiento de la subvención.

2. La determinación de la cuantía de la subvención se realizará a partir de los gastos que ha supuesto la actividad realizada, IVA excluido, salvo cuando sea susceptible de recuperación o compensación.

3. Una vez comprobado que el gasto corresponde efectivamente a actividades susceptibles de subvención, realizada en su caso la depuración de los excesos no computables y las correcciones y ajustes oportunos se procederá a determinar la cuantía de la subvención, que no podrá superar la menor de las cantidades siguientes:

a) El 50 % de los gastos presentados para aquellas actividades que se hayan hecho necesarias como consecuencia de cualquier tipo de obras que afecten a zonas o bienes arqueológicos de protección media o especial, que afecten a zonas, solares o edificaciones en que se presuma la existencia de restos arqueológicos, o que consten en los archivos de la Dirección General de Cultura del Gobierno Vasco como bienes calificables de protección media o especial.

b) La cuantía de la subvención solicitada, sin perjuicio de lo previsto para el supuesto de concurrencia con otras subvenciones.

4. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por la beneficiaria.

Base 11. *Asesoramiento.*

El Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral. A estos efectos, se encuentra disponible la siguiente dirección en la página web:





<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea>

12. oinarria. Ebazpena.

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4 artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena emango eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Kultura Ondarearen Zerbitzuak eskatzaileek zerga-betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko du. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun diru laguntza itzuli behar dutela-eta. Horren egiaztapena egin ondoren, eskatzaileren batek betebehar horietako bat, edozein, ez duela betetzen ikusten bada, agindeia egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio hori egiten ez baduela, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela behin ebazpena emanda.

3. Eskabide bakoitzeko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea bost (5) hilabete izango da, eskabide bakoitza aurkezten den egunetik zenbatuta.

Ebazpena Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak emango du Kultura zuzendari nagusiak egindako proposamena kontuan hartuta, Kultura Ondarearen Zerbitzuak txostena eman ondoren.

Epe hori igaro eta ez bada eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eta jakinarazpenik eman, eskabidea ezetsitzat joko da; hala ere, geroago berriazko ebazpena eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua pertsona edo enpresa interesdunari jakinaraziko zaio, posta ziurtatuaren bidez, salbu eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu dutenei, egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez jakinaraziko baitzaie. Foru-agindu horretan berriaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea>

Base 12. Resolución.

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las personas y entidades interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Patrimonio Cultural comprobará que las personas y entidades solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, y que no son deudoras por reintegro de subvención. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguien incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerido para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de cada solicitud será de cinco (5) meses, a contar desde la fecha de presentación de cada solicitud.

La resolución será dictada por la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte a propuesta de la Directora General de Cultura, previo informe del Servicio de Patrimonio Cultural.

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. La orden foral por la que se resuelva la respectiva solicitud será notificada a la persona o entidad interesada por correo certificado salvo a aquellas que hayan presentado su solicitud a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, a quienes se les comunicará mediante el sistema de comparecencia en dicha sede. La orden foral contendrá expresa mención a que la misma agota la





agortzen duela eta interesdunak errekurtsio hauek jar ditzakeela: foru-aginduen aurka aukerako berraztertze-errekurtsioa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andre txit argiaren aurrean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabete bateko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, bi hilabete (2) epearen barruan, goiko era berean zenbaturik.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, urtero, iragarki bat jarriko du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, deialdi publiko honetan aurkeztu eta ebatzi diren eskabideen berri emateko.

13. oinarria. *Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin.*

1. Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatu ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatzen bada, bereziki maiatzaren 9ko 6/2019 Euskal Kultur Ondareari buruzko aipatu baimenaren ondoriozko betebeharrak betetzeari buruzkoak, eta betiere estatuko edo atzerriko beste administrazio batek edo erakunde publiko zein pribatu batek aldi berean beste diru-laguntza edo laguntzaren bat emanez gero, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

vía administrativa, y podrá ser recurrida por la persona interesada interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la Ilma. Sra. Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

Anualmente el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte publicará, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, la relación de solicitudes presentadas y resueltas a los efectos de esta convocatoria pública.

Base 13. *Compatibilidad con otras subvenciones.*

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

2. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, en especial las relativas al cumplimiento de las obligaciones derivadas de la autorización a que se refiere la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones y ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, dado que el importe de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por la beneficiaria.

IV. TITULUA

Diru-laguntzaren kudeaketa eta justifikazioa

14. oinarria. *Diru-laguntza ordaintzea.*

1. Eskabidea ebazten duen foru aginduen jakinarazpena jaso eta ondorengo hamar (10) egun baliodunetan onuradunak ez badio espresuki eta idatziz dirulaguntzari uko egiten, onartu egin duela ulertuko da, eta Kultura Ondarearen Zerbitzuak

TÍTULO IV

Gestión y justificación de la subvención

Base 14. *Pago de la subvención.*

1. Si en el plazo de plazo de diez (10) días hábiles desde la notificación de la orden foral que resuelve la solicitud, la beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la subvención concedida, se entenderá que ésta queda aceptada, y el Servicio de Patrimonio





diru-laguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetzen hasiko da, Ogasun eta Finantzen Foru Sailean; horretarako, onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntza ordaindu aurretik, egiaztatu egingo da onuradunek egunean dituztela hala zerga betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun diru laguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztatzearen ondorioz ikusiko balitz onuradunen batek ez duela aurreko lerroaldean ezarritakoa betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori konpon dezan, eta jakinaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako diru-laguntzarako eskubidea galduko duela.

15. oinarria. *Diru-laguntza onuradunaren borondatez itzultzea.*

1. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen diru-laguntzen araudia onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikulua ezartzen duenarekin bat eginez, onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza itzultzea erabaki dezake erakunde horrek aurretik eskatu ez badio ere. Kasu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntzaren itzulketa egin arteko berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan xedatzen denarekin eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

2. Onuradunak eskatuta foru diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kultura Ondarearen zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginda.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean egin dezake ordainketa. Ordaindu eta gero, diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Kultura Ondarearen Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru zerbitzuari.

Cultural procederá a tramitar su abono ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a las beneficiarias.

2. Previo al pago de la subvención, se comprobará que las personas beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, y que no sean deudoras por reintegro de subvención.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna beneficiaria incumple, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la subvención concedida.

Base 15. *Devolución a iniciativa de la perceptora.*

1. De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la persona o entidad beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última. En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

2. La devolución de la subvención foral a instancia de la beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio de Patrimonio Cultural. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

3. Una vez practicado el abono por la beneficiaria de la subvención en una entidad financiera, habrá de remitirse justificante del respectivo ingreso al Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento de Euskara, Cultura y Deporte.





16. oinarria. *Diru-laguntzaren pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak.*

Foru dekretu honen bitartez araupetutako diru-laguntzen pertsona edo entitate onuradunek, honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

a) Jarduera gauzatu.

b) Kultura Ondareari jakinaraztea ea baden beste udalerrri, autonomia-erkidego, estatu edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publikoren batek xede bererako emandako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik.

c) Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailarekin elkarlanean jardutea, hala egitea eskatzen denean, eta egin beharreko proiektuaren gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).

d) Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jardueren menpe jartzea.

e) Diru-laguntza eman ondoren hedatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerrarazi beharko da; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudian ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:

"Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia".

Jarduerak justifikatzeko memorian, argazki bidez edo beste erreprodukzio-bide baten bidez egiaztatu beharko da nola zabaldu den publikoki Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako esku-hartzeari emandako laguntza.

f) Dohainik eta eskusibitaterik gabe, higiezinaren irudi grafiko eta aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio tekniko erabiltzen utziko dio Bizkaiko Foru Aldundiari, zabaltzeko edo/eta argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko, informatiko edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz.

Base 16. *Obligaciones de la persona o entidad beneficiaria de subvención.*

Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral se comprometen a:

a) Realizar la actividad.

b) Comunicar al Servicio de Patrimonio Cultural la obtención de otra u otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de otra administración o ente público municipal, autonómico, estatal o internacional.

c) Colaborar con el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte en aquellos supuestos, en que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al ámbito de la entidad (estudios, encuestas, datos estadísticos, etc.).

d) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los Departamentos Forales de Euskera, Cultura y Deporte, y de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

e) En todo soporte de difusión y en cualquier medio o modalidad de presentación pública relativa a la actividad subvencionada realizada con posterioridad a la concesión, deberá hacerse constar el patrocinio de la Diputación Foral de Bizkaia; se utilizarán, para ello, obligatoriamente los elementos establecidos en la imagen corporativa de la Diputación Foral de Bizkaia, incluyendo junto al logotipo la siguiente frase literal:

"Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia".

En la memoria de actuación justificativa deberá acreditarse fotográficamente o por otro medio de reproducción el modo en que se ha difundido públicamente la contribución de la Diputación Foral de Bizkaia a la actividad subvencionada.

f) Ceder, con carácter gratuito y no exclusivo, a la Diputación Foral de Bizkaia el derecho de utilización de la imagen gráfica del inmueble y de la información técnica contenida en la documentación presentada, para su divulgación y/o publicación en cualesquiera medios y formatos bibliográficos, audiovisuales, informáticos o que permita el uso de la técnica.





g) Onuradunaren izaera dela-eta ezarri behar bazaizkio, betebeharrak hauek:

1) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkartzean eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegeak bermatuta.

2) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezkeen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jardura egiteko sortutako materialean.

3) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonen buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.

4) Egiaztatzea, hala dagokionean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela.

Horretarako, betebeharrak hori betetzen dutela adierazi beharko dute eskabidean, dagokion laukia markatuz.

g) En caso de que le sean aplicables según la naturaleza de la beneficiaria, las siguientes obligaciones:

1.º Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

2.º Velar por que el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

3.º Asumir, en la ejecución del proyecto subvencionado, el uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital, y desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que, en su caso, se genere, todo ello al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

4.º Acreditar, cuando proceda, el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres, conforme a lo previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo de 2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

A estos efectos, deberán indicar en la solicitud, marcando la casilla correspondiente, que cumple con dicha obligación.





5) Plantillan hamabost langiletik gora izanez gero, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria saihesteko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatze eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.

Horretarako, betebeharrak hori betetzen dutela adierazi beharko dute eskabidean, dagokion laukia markatuz.

h) Enpresen kasuan, deslokalizazioan ez erortzea, martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauaren 3. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

i) Deialdi honi dagokionez, foru dirulaguntza baten erakunde onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Dirulaguntzen Erregelamenduaren 53. artikuluan azpikontratazioaren arloa dela-eta arautzen diren betekizunak eta debekuak. Onartutako azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa diruz lagundutako jardueraren % 90 izango da.

j) Bizkaiko Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

17. oinarria. Itzultzea.

1. Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta aurreko oinarrietan ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez badira edo Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Erregelamenduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada, besteak beste:

a) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

5.º Aquellas que cuentan con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

A estos efectos, deberán indicar en la solicitud, marcando la casilla correspondiente, que cumple con dicha obligación.

h) En el caso de empresas, no incurrir en deslocalización empresarial, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 3 de la Norma Foral 7/2007, de 27 de marzo.

i) A los efectos de la presente convocatoria, las entidades beneficiarias de subvención foral quedan obligadas al cumplimiento de los requisitos y prohibiciones regulados en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 y en el artículo 53 del Reglamento foral de subvenciones, en materia de subcontratación. El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90 % del importe de la actividad subvencionada.

j) Las demás previstas en el art. 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia y en los artículos 54 y siguientes del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo.

Base 17. Reintegro.

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en las bases anteriores o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, entre otras:

a) Incumplimiento de la obligación de justificación.





- | | |
|--|--|
| b) Emandako diru-laguntzari dagokion helburua betetzen ez bada. | b) No cumplir la finalidad para la que la subvención fue concedida. |
| c) Dirulaguntza nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den dirulaguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Euskara, Kultura eta Kirolaren Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak eskaera egin ondoren. | c) La justificación insuficiente o deficiente conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la subvención no justificada, previo requerimiento por parte del Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte. |
| d) Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada. | d) Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello. |
| e) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira. | e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas. |
| f) Foru dekretu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen ez badira. | f) Incumplir los demás supuestos previstos en el presente decreto foral. |
2. Diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantzazio gehiago jasotzen bada, diru-laguntza itzuli beharko da.
2. El exceso de financiación, con relación al coste de la actividad subvencionada, también constituirá motivo de reintegro.

18. oinarria. *Datu pertsonalen babesa.*

Base 18. *Protección de datos de carácter personal.*

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordezkari aplikatu beharreko gainerako araudia.

Será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

19. oinarria. *Aurrekontuko partida.*

Base 19. *Partida presupuestaria.*

1. Deialdi honetan araututako foru diru-laguntzen zenbatekoa, guztira, hirurogei mila euro (60.000 €) da, eta honela banatuko da:

1. Las subvenciones forales reguladas en la presente convocatoria, por importe total de sesenta mil euros (60.000 €), queda distribuida del siguiente modo:

a) Hogeita hamar mila euro (30.000 €), 0404 G/336107/46999/0000 2007/0155 aurrekontu-partidaren kargura, pertsona fisikoei, diru-laguntzak emateko, urteko hauetan banatuta:

a) Para la concesión de subvenciones a personas físicas, treinta mil euros (30.000 €) a imputar con cargo a la partida presupuestaria 0404 G/336107/46999/0000 2007/0155, según la siguiente distribución por anualidades:

2023. urtekoa: 10.000 euro
2024. urtekoa: 20.000 euro

Anualidad 2023: 10.000 euros
Anualidad 2024: 20.000 euros

b) Hogeita hamar mila euro (30.000 €), 0404 G/336107/44300/0000 2007/0155 aurrekontu-partidaren kargura, partaidetzarik ez duten enpresei (SA, SL, kooperatiba-sozietateak eta sozietate zibilak, Kode Zibilararen 1.669. artikuluan jasota daudenak izan ezik), bai eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan enpresaburu eta profesional gisa alta emanda dauden pertsona

b) Para la concesión de subvenciones a empresas no participadas (S.A., S.L., sociedades cooperativas y sociedades civiles excepto las recogidas en el artículo 1.669 del Código Civil), así como a las personas físicas que tengan la condición de personas empresarias y profesionales dados de alta en el Impuesto de Actividades Económicas: Treinta mil euros (30.000 €) a imputar con cargo a la partida





fisikoei diru-laguntzak emateko, urteko hauetan banatuta:

2023. urtekoa: 10.000 euro

2024. urtekoa: 20.000 euro

presupuestaria 0404 G/336107/44300/0000 2007/0155 según la siguiente distribución en anualidades:

Anualidad 2023: 10.000 euros

Anualidad 2024: 20.000 euros

2. Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua eta 5. zenbakien arabera, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru agindu bidez edo Kulturako Zuzendari Nagusiaren ebazpen bidez deialdia ebatzi baino lehen aldatu ahal izango da. Kreditu erabilgarrien behin betiko deklarazioa zein kredituon banaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, dagozkien gastu-espedienteen aldaketak egin ondoren. Horrek, baina, ez du ekarriko ez eskabideak aurkezteko epe berri bat irekitzea ez deialdia ebazteko epe berri bat hastea.

3. Laguntza horiek ematea maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 67. artikuluan ezarritako legezko betebeharrak denez, deialdi honen gehieneko zenbateko osoa zenbatetsia da; beraz, 34/2010 Foru Dekretuaren 41.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, aurrekontu-kredituak aldatu ahal izango dira Gobernu Kontseiluak onartutako foru-dekretu bidez eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, aurreikusitako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan hartuta. Kasu horietan eskaerak aurkezteko epea luzatu beharko da.

4. Eskaera guztiak ebatzi ondoren, emandako diru-laguntza aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimena deuseztatzea izapidetuko litzateke, soberan den zenbatekoan.

2. Dicha distribución tendrá carácter estimativo, y conforme al artículo 43.4 y 5 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, podrá ser modificada antes de la resolución de la convocatoria mediante orden foral de la Diputada Foral de Euskara, Cultura y Deporte o resolución de la Directora General de Cultura. Tanto la declaración definitiva de créditos disponibles como su distribución serán publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia, previas las modificaciones que procedan en los respectivos expedientes de gasto sin que ello suponga apertura de nuevo plazo para presentar solicitudes ni el inicio de nuevo plazo de resolución de la convocatoria.

3. Dado que la concesión de estas ayudas constituye una obligación de carácter legal impuesta por el artículo 67 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, la cuantía total máxima de esta convocatoria tiene carácter estimado, por lo que en aplicación de lo establecido en el artículo 41.2 del Decreto Foral 34/2010, los créditos presupuestarios podrán ser modificados antes de que finalice el plazo de presentación de solicitudes mediante decreto foral aprobado en Consejo de Gobierno, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas previstas, y debiéndose ampliar el plazo de presentación de solicitudes.

4. Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante.

